

**XARLES ITURBE**

**Tolosa, 2023ko maiatzaren 17an**

**Diskurtso orientagarria. Hizlariak mitinean zehar ematen duen hitzaldia izango da balio duen bakarra.**

**Discurso orientativo. El único discurso válido será el que finalmente pronuncie el orador u oradora en el transcurso del mitin.**

Arratsalde on Tolosa!

Arratsalde on gaur hona bertaratu zareten guztioi!

Zuen baimenarekin.

Aurreko larunbatean, Lore eta Landare Azoka Berezia ospatu genuen Tolosan, San Isidro egunaren bueltan ospatzen dena urtero. Azoka Berezi horren baitan, Tolosako Alde Zaharrera sarbide nagusi den Gaztelako Arkuaren babespean arbola desberdin bat ipini genuen: “Desioen Zuhaitz” bat, Asiako herri batzuen tradizioetan ohikoa omen dena.

Bertan, tolosarrek, San Juanak bitartean euren nahiak eta desioak zintzilikatu ahal izango dituzte. Noski, gauzatuko diren esperantzarekin.

Irudi hau erabili nahi izan dut gaur zuen aurrean JAKINA DEN, baina GOGORARAZTEA KOMENI den baieztapen bat egiteko:

Guk, Tolosako Eusko Alderdi Jeltzalea osatzen dugunok, argi dugu zer nolako herria nahi dugun:

- Tolosa bizia, anitza, abegitsua, berdinzalea eta jasangarria.
- Ekonomikoki oparoa, kalitatezko enplegu aukerak eskainiko dituen.
- Gure gazteei etxebizitza aukera berriak eskainiko diena
- Herritarren ongizatea eta zaintza erdigunean jarriko dituen, inor atzean utzi gabe.
- Garenaz harro dagoen Tolosa, euskalduna eta euskaltzalea, kirolzalea, ifauterizalea.
- Memoria duen herri bat.

Hori da, zalantzarik gabe, nahi dugun Tolosa. Hori da, guk, Alderdi bezela, larunbatean ipinitako zuhaitz horretan zintzilikatzen dugun desioa.

Eta hori esanda, aipatu beharra daukat, azkenaldian, bakar batzuk Tolosa ilun eta desitxuratu bat marrazten saiatzen dabiltzala. Hori ez da guk aldarrikatzen dugun Tolosa.

Eta gehiago esango dut: ez gara Tolosa horretan isladatuak sentitzen.

- Desesperantzaren eta diskurtso katastrofisten aurrean,  
JARRERA ERAIKITZAILEA ETA ENTZUKETA ETENGABEA

- Debaldeko liskarren aurrean,  
APUSTU SENDO ETA EGINGARRIAK
- Adanismoaren eta paralisi estrategien aurrean,  
EGUNEROKO ESFORTZUA, LAN ISILA ETA SERIOA.

Hori da gure estiloaren muina. Eusko Alderdi Jeltzalearen egiteko modua. Hori da gure sekretu bakarra.

Como decía en euskera, últimamente, hay quienes se empeñan en describir una Tolosa oscura y desdibujada. Esa no es la Tolosa que nosotros y nosotras reivindicamos.

Y digo más: no nos identificamos con ella.

- Ante los discursos que alimentan la desesperanza y el catastrofismo,  
ACTITUD CONSTRUCTIVA Y ESCUCHA PERMANENTE
- Frente a las polémicas gratuitas,  
APUESTAS SÓLIDAS Y REALIZABLES
- Ante al adanismo y las estrategias de parálisis,  
TRABAJO SILENCIOSO Y SERIO

Ese es nuestro estilo. La manera de hacer del PNV. Ese es nuestro único secreto.

Eta zehaztasunetara etorrira, ZER?

Zein da Tolosako herriari, tolosarrei, gure senitartekoei, lagunartekoei, seme-alabei, ezagunei eskaintzen diogun bideorria?

Portzierto, etxez-etxe eta postontziz-postontzi gabiltza egun hauetan zehar gure egitasmoak Tolosako auzo guztietan partitzen. Eskerrak bihotzez lanketa honetan parte hartzen diren persona guztiei.

Beraz, apustuak egiten jarraitu, Tolosa aurrerabidean ipintzeko.

Hamaika proiektu ditugu. Batzuk aipatzearren:

- + Ospitale publiko berria Tolosan.
- + Etxebizitza babestuak alokairuan lurramendin eta Amaratzen.
- + Aparkaleku alternatiba berriak.
- + ANDRAGORA, Tolosaldeko emakumeen etxea, berdintasunaren alde lanean jarraitzeko tresna gisa.
- + Apatxa industriagunearen 2. fasea eta ELIKER, Kalitatezko Elikaduraren Zentroa, ekonomiaren garapena sustatzeko.
- + Alde Zaharra biziberritzeko plan berezia eta Zumarditxikia herritarren eskura jartzea.

*Aurrera, batera!*  
**Euskadi**  
*Mira al futuro*



+ Kultur azpiegituren berrantolaketa: besteak beste, liburutegi berria, Euskararen Etxea eta gazteei eskainitako zerbitzuak indartzeko.

+ Tolosa berdeago baten alde, trantsizio energetikoan urratsak egiten jarraitzea.

+ Partaidetza bide iraunkorrak sustatu eta kalitatezko arreta bermatu.

11 proiektu Tolosak aurrera egiten jarraitzeko.

11 proiektu Eusko Alderdi Jeltzalearen lanari jarraipena emateko.

Tolosan, Aurrera Batera!

Eta amaitzeko: Bide luzeak gaitu egin bidelagun, Euskadik abertzale, euskarak euskaldun. Gure gazte-indarrak bat egin ditzagun, gizarte bat hobea eraiki dezagun. Gora Tolosa!

Gora Eusko Alderdi Jeltzalea!

Eta Gora Euskadi Askatuta!